

# ZER

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

240n. zenbakia  
orrilla 1999



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



## **BAKIO'KO ELEIZEA**

- ONDO EGOKITUA
- EDERTO BARRIZTATUA
- ELEIZA APAINDUEN EREDUA

# EUSKALERRIAN EUSKERAZ

IRAZA

13

.IL

L~

1998-99 IKASTURTEA

## OGEITAMAIKAGARRENA BIZKAIERAZ

### IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

**Egunak:** ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

**Orduak:** GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

**Ordaña:** 18.000 PEZETA

**Izena emoteko-tokia:** EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22  
BILBAO

### 31<sup>2</sup> CURSO DE EUSKERA BIZKAINO

#### 3 NIVELES Y CONVERSACION

**Días:** LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, 0 MARTES Y JUEVES

**Horas:** MAÑANA, TARDE Y NOCHE

**Curso completo:** 18.000 PESETAS

**Inscripciones:** EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - TELEFONO 423 53 22  
BILBAO

LAGUNTZAILEA

COLABORA

**4** ( **BBK**  
**Bilbao Bizkaia Kutxa**

## GOGORKERIA ALA BAKEA?

Urte batzutan jokabide gogorraren ekintzak eta ondorenak ikusi ondoren, gaur giro barri baten aurrean aurkitzen gara, su-etena iragarri danetik aurrera.

Gogorkeria aundiai dagokien jokabidea da. Aundia danak gogor eginda txikiagoa zapaldu egiten dau.

Nondik sortu da orduan eta zelako indarra euki dau aspaldion gure artean izan da gogorkeriak? Or dago txikien gogorkeria dan bide bat, uriko gudaketa txikia edo "guerrilla urbana" deritxona. Eta miragarriak dira lortzen dauzan ondorenak. Sarritan laterri aundiak ezin izaten dabe azpiratu ezelan be guda txiki onein indarra. Ori leku askotan ikusten da, batez be Ego-Ameriketean, eta ori ikusi da geu-

eta obarantza doa. Europaren barruan, ziur nago, erri txikiak berba egiteko aukerea izango dabe. Eta olako erriak asko be asko dira Europa zabalean. Daukagun edestia daukagulako nortasunik geien daukan erri txikia Euskalerrria izango da, bear ba'da. Ba-daukagu or zeregin aundi bat! Errien eskubideen alde jokatzeko zeregiña!

Baiña alkar-izketearen bidez ezer lortu nai ba'dogu, baldintza batzuk bete bear doguz. Lenengo baldintza guztiok batera jokatzea da. Aspaldion alderdi politikuak izan doguz jaun eta jabe, eta erakunde oneik erria banatzeko arriskua dauke. Alderdi guztiak bat egin bear dabe erriaren eskubideak zaindu bear diran orduan. Errialde

### ZER ALDIZKARIA

**Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (2.500 pezeta) kontu onetan:**

**EUSKERAZALEAK**

**BILBAO BIZKAIA KUTXA**

**Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 2.500 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.**

**Eskerrik asko!**

re artean be. Baiña ez, erri txikien bidea ez da gogorkeria-rena. Jokabide gogorrean eta guda egiten aundiak dira indartsuagoak. Begiratu gure edestira eta errez konturatu-ko zaree gudara sartu-bearra izan dogun bakoitxean galzaille urten garala. Gogoratu Karlostarren gudak, naizta oso-osoan gure gudak izan ez, eta gogoratu azkenengo guda negargarria.

Eta gogorkeria ez ba'da gutzat eta txikientzat jokabide egokia, zein da guri dagokigun jokabidea? Alkar-izketa, politika-jokoa, zalantza barik.

Baiña orrelan jokatu dogunean be galdu ez dogu egin? Euskaldunak España'ko erregeakaz izan dabezan alkar-izketak ez dira izan beti burua ta garria makurtzeko? Ez gara beti atzerantza joan alkar-izketearen bidea artu dogunean be?

Ba-leiteke baietz esan-bearra. Ez dogu jakin geure eskubideak bear dan lez zaintzen, ez dogu jakin aundiakaz zelan jokatu bear dan, baiña edestia bizitzaren irakaslea da eta gaur zurrago gagoz. Gaiñera gaur alkar-izketa au ez da txoko baten barruan izaten, une guztietan mundu osoa daukagu begira. Sarritan ez dabez gure arazoak ulertzen, beti izango da burruka egin-bearra, baiña giroa gure alde dator

guztiak ondo alkartuta eta erriko erakunde guztiak bat eginda, abots aundi bat euki geinke munduko errien artean.

Ori eziña dala esango dau norbaitek. Erriaren barruan ainbeste etorri-barri eta ardatza Madrid'en daukan alderdiak daukaguzan artean, ezin lortu olako batasunik.

Bai, or dago koska! Euskalzale edo abertzale ez diran alderdi orreik gaurko jokabidean jarraitu ezker, kaltegarri doguz. Zer egin? Kanpora bota olakoak? Ez, ez da bidezko gauzea, geu be ez ginduezan beste leku askotatik kanpora bialdu. Bideren bat aurkitu bear da alderdi orreik Euskalerrria aintzat artu eta beroneri lagundu dagitsen. Bein eta barriro esan bear dogu Euskalerrrian bizi diranak gure erri au maitatu bear dabela. Abertzale-izena alderdi batzuk daroe, baiña erritar guztiok izan bear dogu erri-zale, erri-laguntzaille. Erriaren buru-jabetza nai ez dabenak be bai, gu Españatarrak izatea nai dabenak be bai. Eta oiñarria ori dala, gero autarkiak esango dabe nogaz alkartu bear garan ala jabetza osoa eskuratu bear dogun. Orreik jokabideak dira, baiña erria bat, maitatu bear dogun erria bat.

OLAZAR'tar Martin

---

# BIDALGOA

---

Badoa apurka, apurka, gure Euskal-etxearen jabetasunerako bidea beteten; eta ori, oso pozgarria da neuretzat, neure bizitza orren neurrian betetan dalako. Gure etxe nagusiaren NORTASUNA zentzuz betetan asi garalako; eta bada-ki ori, oso pozgarria dala gure anai/arreba artean.

Orregaitik, gure etxe nagusiaren edertzapena ulertzen dot, Euskal-zentzuaz beteten danean. Nor-beren etxe-txikian egin bear leuken sendiaren antzera: sarreran edo gela aundietan, guraso, aitite/amarra, gero etxeko seme/alaben argazki edo margozkiak eskegita ondo apaindurik, edo zarkin bat etxekoen baten-batagaitik lan ederra berarekin eginekoan bir-eskuratzeke, erriko gizon-jakintsuarenak eta abar...; dana dala, guri zeozer esaten dauskuna etxean sartzetakoan; eta batez be, beti lasaitu ta alaituaz etxe txiki ta aundien bizitzarekin. Orregaz, erri-jakintza sendotu egiten dalako eta Euskalerrria'ren izaera bizitu bereziko argiakaz, dirdiratsu agertu daiten erri guztiaren aurrean.

Alderantziz, nik gaur-arte ikusitakoa geienetan, edo arlo aundi baten beintzat, izan da, arrokeriz bete-betean esaten dana: "nire etxean berrogei margozki eta milla liburu egongo dira"; baina, norenak edo zeren buruz diran itandu ezker, ez da agertzen erantzun garbirik. Bai aberastan ustela, arrokeria baizik beste ezertxo be erakusten ez dauana.

Guzti-au dator, Latxaga jaun jakintsuak neugaz eukineko alkar-izketaren bidetik. Berak esaten dau: "gure erri-jakintza zabaltzeko BIDALGOA (servicio de correos) eskuratu bear geunkela, tresna ikaragarrikoa dalako erri batentzat. Begiratu bestela erria ezagutzeko arloan, a-zelango mailla artuko geunken, gure gizon aundiak esku-artean era ibilteagaitik ezkutitzen bidez; danak ezagutuko geunkezelako: Azkue, Arana'tar Sabino, Orixe, Lizardi, Onaindia'tar Santi, Barandiaran'tar Joxe Miel, Lekuona'tar Manuel, Kanpion'tar Arturo, Oñatibia'tar Jon, Zipitria'tar Elbira eta abar. Ez dozu ikusten? Ze polita izango litzateken gure erriarentzat olan izango balitz! Gaur ezagutzen doguz: Cervantes, Lope de Vega, Quevedo, Azorin eta abar; oso ez-berdinak direzelako gauzak Madrid'tik ikusita edo Euskalerritik. Selluetan bear doguz gure gizon/emakume aundien irudiak Euskalerrriaren jakintza zabaltzeko. Eta bigarren gauza izango zan, lantoki geiago eukitea gure gazteentzat.

Ez zan geratu pozik alkaar-izketarekin, eta FEROE ugarteak daukan nortasunezko askatasuna BIDALGO'aren bidetik, bai eurak ateratako eta berak erositako iru liburu txo eder emon eustazan idatz-lan au egiteko.

FEROE'n lurraldea, ogeitabi ugartearen osotzen dabe; eta Kalmar'eneke batasunagaitik 1397'an Dinamarkari egokitzen jako, baina 1948 ezkerotzik jabetasun aundia daukie curen jaurkintzarako. Ezkerotziako Iparraldean da kokatuta, 1.400 Km. laukiak daukaz ugarte bilduma orrek eta 44.000 biztanle; nekazaritza ta artzaintzatik bizi dira.

Jabetasun bidez, curen ardurapean dauan gauza bat BIDALGOA da, eta emen daukadan kartoizko orri luzeak, karpetaaren antzera batzen danak, bere agirian diño: 1996'ko seillu gomutagarriak. Eta zabaldu alde batean, ugarte baten ingurubegi irudi polit-bat erakusten da, eta barru-aldian, 1996'an agertuko diran selluak. Bigarren liburutxoan, eskumaldeko ornan sellua euren gizon aundien irudiaz, edo beste origarriko irudi batekin. Ezker aldeko orrian, oroigarriaren edestia, izaera eta zergaitik gogoratzen dan. Irugarren liburutxoan, bigarren egite bardin antzekoa, baina oraingo margolariakaz.

Begiratu beraz, nolako edertasuna erri-jakintzaren arloan, eta zelango indarra daukan erritar guztiak ikasi daien gure erriko gizon ospetsuak, lurralde eta daukaguzan txoriak, abere, zugatz, itxaso-bazterrak, baita gure tokirik politenen irudiak.

Ain garrantzizkoa izanda, eskaera sendo bat egin bear dautsegu agintariai: orreik esku-bideok gureganatzeko, errien esku-arteko ardurak direzelako, eta bear ditualako erriak bakearen bidea sendotu daiten.

Eskaera ederra Euskal gorputza sendotu ta bizitu daiten!

FEROE ugartekoak Dinamarka'ko erria osotzen dabe, eta orregaitik Euskalerrria baino eskubide askoz gutxiago dauke, gu erri-bat garalako; baiña eurak lurraldeko jabetasuna diruaren arloan egiteratuten dabe, alan dalako euren banakuntzaren ardura legearen bidetik.

Nire ustez posta'ren jabetasuna lortzeko, erriaren indarra bear geunke, eta begitu zenbat bide daukaguzan eskaera ori izanpetzeko: Udal-etxeetatik asita, batzoki, elkarte, elkargo, auzunetan eta abar.

Ordua da, Euskalerrriko osasunaren eta parkearen arloarekin erritarren artean arduratzen asteko, danon artean osotzen dogun erri-au argitu daiten.

OR BIDE BAT ERRIA ARGITZEKO!

OR ERRI ARDURATUA!!

ATUTXA'tar PAUL  
ZORNOTZAN 1999' an APRILLE'ko 6' an

## MEXIKORA IBILLALDIAN

Mexiko'rako ostera bat prestatzea ez da egunero egiten dan gauzea, beraz kontuz eta zuur ibilli giñan guge azkenengoz uri aundi onetara joatea erabagi gendunean.

Eztegu batzuk ospatzera joatea zan gure asmoa. Ogeta-ka urteak igaroak ziran Mexikora joan barik, beti joatekotan gengozala; bertan Mexikon ainbat senitarteko euki arren eta eurak aal izaten daben guztietan euskalerriratu egiten dirala ikusirik, logika guztiz ango ezkontzaren eztegu batzuk (loba batena ain zuzen be) ospatzea erabagi gendun, bertara, Mexiko'ra joanda.

Mexiko'ko «Departamento Federal» dirautsoena oso uri ederra dozu, erraldoia nunbait. 20 milloi biztanle dagoz erroldaturik; beraz orrenbeste lagun bizi dan lekua ezin edozelakoa izan, gitxiago bere kondaira, arkeologi-lanak, eta beste abar luze bat gauza kontutan izanda.

Ille betean egon gintzazan bertan, au da, Mexiko'ko uria, Cuernavaca eta Acapulco'gaz egunak bananduta. Ego-taldi laburra esan bearko, ango inguruetan dagozan ikusgarri begirada bat baiño ez bada be emoteko, bestela uste dan baino denboraldi luzeagoak bear izango leitekezalako, noski.

Ezkontza bera, «Capellania de San Diego», «Exconvento de Churubusco» deritxo eleizan ospatu zan. Eleizea, txiki-xamar iruditu jatan. Baratze eder batek inguratzen ebala an-esi edo orma batez ertsiturik egoan. Auxe, eta ate nagusiko alde bietan burdiñezko kañoi bana egoanaren xeetasuna ikusteak, beste antxiñako gizaldi batera eroan ninduen. Pentsamentuz, jakina, irudimenari berea emonda.

Mezea. Josulaguna zan abade batek egin eban, bere izena: «P.earlos Escandon S.J.» eta eguna, «el dia 11 de Julio a las diecinueve horas en punto, D.M.» iñoan estei-deiaren txartelak; au da, illuntzean. Gainera euri apurren bat egiten asia zan eleizara sartzerakoan, beraz urtetzean ja gau illuna zan.

Kaleratzerakoan, baktotxa bere talde, bikote edo kidekoekin bildu eta kotxean sartzera alegindu zan; zeñek ariñago edo zuzenago noiz iritxiko jantoki edo afaltokira leia baten bezela goiazala.

Gau illunean kaleetako argiak diz-diz egiten ziarduen «Calle de Tlalpan» etorbidean zear.

Apariketa edo ospakizuna egiten zan jantokiari «Antigua Hacienda de Tlalpan» eritxon, antxiñako «Hacienda» aundi eta dotorea. Jorge Negrete zana eta bere emazte María Félix, abeslari eta zinemako aktore ospetsuak eurak, antxe bertan bizi izandakoak. ez dakit zenbat urtetan.

Batzutan, bizitzako aztinkadetan ez dakigula zelan edo nun amaitu bear izango dogun pentsatzen asi nintzan. bertako lorategian zear niñoiala iturrien zurrumuruak entzuten nebazan bitartean eta jaiaren soñu eta eresiazagaz nastatzen ziralarik.

Gero, bere eguraldi onagaitik, bertan geratzeko, Cuernavaca-uria izan jakun uririk egokiena, atsegiñena. Antxe geukan aukeratuta eta prest geure ostatua, bizitokia.

Iñoenez, Cuernavaca'ko uria izan da Ipar-Americar askotako bizi-lekua; leenago, noski. Orain ez ei da orrenbesterako. Antza, jentea beartuta dago etxe-bizitzetan -armadun- atezaiñak erabiltzera burdin-sarezko atean etxeak zaintzeko. ezezagunak datozenean.

Adibidez, guri, lagun batzukaz joanda, taxiaren atzeko atea edo kapota,zabaldu egin euskuen egun batean, onelako «Urbanización» dalako bizi-tokian. Bertako atezain edo jagolarien zeregiña baita.

Mexiko'ko urian be, beste-orrenbeste gertatzen ei da. Emen, etxe bakarretan bizi arren, ez dago ikusi baino besterik, antxe daukezan atetzarrak; buraiñezko dirudie.

Ulgeraria da ain erraldoitzar urietan onelakorik gertatzea. Badago, ostera, zer onik azaldu au da, bertako jentearen apaltasun eta adiera.

Esaterakoan, Mexiko'tik Cuernavaca'rako autobusa artzerakoan, barrura sartuaz batera jesarlekua dala-ta, prest dagoz bertako langilleak laguntza emoteko e.a «Quiere que le ayude»? - edo olakoren bat esanaz. Gero, zein edari gura dozun... «freskagarria» eta gozokiak emoten, ordu bi edo gitxiagoko ibilbide baten, ain zuzen be. Egundaren gaua zan, gabeko amarrak, edo. Nik ez dakit augaitik izan ete zan baina filme bat ere ipiñi eben.

Azkeneko laga dot Acapulco'koa, aste-buru bat baino besterik ez genduan egin bertan-eta. Bariku goizean joan eta domeka illuntzerarteko egotaldia baiño ez.

Orain diñoenez: toki «aparta». Aren itsaz-bazter» baja, urkolko, izparren, nai edozein eratara esan, ia Mexico guttikoa balio dau.

Autobidean gora abiatuz, goi-goian egoan gure txokoa. Zein baiño zein ederrago bizi-leku eta egoitzak dagoz bertan ugari. Ango itxasoaren aurrean dagoan ikuspegi alai eta koloretsua ez da aiztutekoa. Argia, baretasuna, auxe da onelako tokietan nagusi...

Ezeren faltarik izan ez gengian, azkenengo egunean. domekan, kaialdera jaitxi eta motordun ontzi bat alokatu genduan, itxasertz osoan zear itzulia egiteko, Acapulco'ko bidaldiari agur esanda.

Ipuiñetan bezela, zoriontsuak izango ziran guztiak (senitartekoak) egundaren; baita eguzkiaren izpien erruz, makiña bat lepo eta aurpegi erre eta baltz-baltz egitea lortu.

Azkenago oraindik ere, aiztuta neukalako, auxe: Ondartzara joateko aukerea be izan genduala eta Pacifico itxasoa ikusi aal izan.

Zer esanik ez labur egin jatala ibillaldia eta ikusitakoaren zjrrarak neuretara eta bizi-biziro kontatzera saiatu nazala, azkenengo auxe berau ere arma datorrela-ta.

---

# BIZKAIA IRRATIAKO LAGUNOK!!

---



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE

Iniaki MARTIARTU

Ez beite esandako guztia zaku zaarrean gelditu, arren.  
Izan bei mendebaldeko euskereak zor jakon lekua zuen  
argitalpenetan be. Alan izan beite! Eskerrik asko.

Bakion, 1999ko martiaren 9an

Urtero-urtero jaso izan dot argitaratu daroazuen eskuko egutegia. Urtero-urtero begiratu oi deusot bertan agertu izan dozuen euskera ereduari. BIZKAIA IRRATIA Bizkai osorako mendebaldeko euskeran egiten dan irrati bakarra dan ezkerroan, egutegian be bide edo aukera ori agertutea oidalako gauzatat artu bearko zitzakean. Ez da, baina, orain artean olan izan. Bertan agertu izan dozuen euskera eredia estandarra izanda be, mendebaldeko eredurik eza nabaria be nabaria izan da.

Nire eritxi apalean, egutegiko emoitok (aste eta ilabe-teen izenak) mendebaldeko euskeran argitaratu bearko zeunkeez. Etxeko izkuntza jokabideagaz bat egitea artez-na eta logikoena litzake eta.

Kritika au positibizatu guran, esandako guztia dala-eta, ekarpen txikia eta eskabide apala egin gura deusuedaz. Alan ba, mendebaldeko euskeran izen ezbardinak egon arren be, amen dozuez, bai erriaren agoan, bai tradizino idatzian, geien erabili izan diran emoitok, aurrerantzean alantxe argitaratu daizuezan:

---

## ILABETEA

urtarrila  
zezeila  
marti a  
apirila  
maiatza  
bagila  
garagarrila  
abuztua / agorrila  
iraila  
urria  
zemendia / azaroa  
abendua

---

## ASTEKO EGUNAK

asteleenalena  
martitena  
eguaztena  
eguna  
barikua / eguabakotxa  
zapatua  
domekea

## ILLUNTZIA

Eguzkia ba doa...  
Itxasoa maite dau  
arratsaldepean;  
gauaren poz guztia  
uretan murgildurik  
eiteko ustean.

Agur egun argia  
bizien arimia  
gaurkoz izan zara;  
lurra estitu dozu  
ta atseginez be dana  
daukazu begira.

## ESNATU

Betor urte barria  
gogo onez jantzia  
soineko barriaz;  
betoz albiste onak  
zeru goitik lurrera  
arnasa garbiaz.

Zerua zabal dago  
lur baltza argi nairik  
egi lurrunetan;  
lurra esnatu zaitez  
egi esanetara  
aize garbietan.

PAULIN

# GURE IZAKERA AZTERGAI

Latxaga danak liburu onekin  
ematen digu aukera,  
gertu-gertutik ezagutzeko  
Euskalerrria ta euskera;  
eta bertako giz-emakumek  
darabilkiten joera,  
baina bateze ikertu duna  
erri onen izakera.

Joxe Iñaxio Salaberria

## JESUS PEÑA ARETXABALETA (1915-1937) (Euskal idazle gaztea, abertzale su-izkillatua)

Gipuzkoa'ko Aretxabaleta'n jaio zan, 1915'ean. Bere kontura ikaslea izan zan eta Aretxabaletako BEROA bal-tzuan egin eban lan, agiri-zaintzaille lez. Bitarteetan sal-gaiak saltzeko arduradun lez jokutzen eban.

Gazte-gazte zala Aretxabaleta'ko Batzokian kideko bizi lez agertzen da.

«LUISTARRAK» eragintzan ekintzaille aspergabe lez jokatu eban.

Euskal-idazle lez be ezaguna da. AITZA izen-ordea artuta idazten eban aldi aretako aldizkaririk ezagunenetan: ARGIA, EUZKADI, GAZTE, GURE MUTILLAK, LUISTARRAK». Ba-dira ogeta amar bat berak idatzitako lanak (1933-1937)

Gudaldian SASETA gudarostekoa izan zan. REINOSA (Kantabria)'ko mendietan zauritu eben eta BERTAKO GAISO-ETXE BATERA EROAN. Eskoitarrak aurrera egin ebenean baitu egin eben eta, antza dagoanez, 22 urte-ko zala su-izkillatu. Orrelan galdu zan elertiaren itxaropen-erako buru argi bat.

### BERE IDAZKIAK ZELAKOAK DIRAN:

«Itz lauz idazten dauanean agertzen dau bere nortasuna, batez be zeazketak egiten dauzanean eta bere euskerea apaña ta errikoa da, beti zuzena. Bere luma ederra, elertia-ren etorkizunerako itxaropena zan. Basatikeriak azpiratu eban»

EUSKERAZAINTZA EUSKEREAREN ERRI AKA-DEMIK diardu une onetan Jesus Peña gaztearen idaz-lanai buruz ikerketa egiten.

LATXAGA

## BERRIEMAILLE TREBEA

Kazetari euskaldun gazte au Aretxabaletan jaiotzen da 1.915 garren urtean, bere izen deiturak Jesus Peña Etxeberria dira, ala eta guztiz ere askoz ezagunagoa da bere izen-goitiagatik «Aitza», berak bere idazlan guztiak goititzen onekin izenpetzen ditu. Anai arteko guda dala eta bizitza oso laburra dauka baiña idazle baten doaria edo idazteko kemena eta indarra etzaizkio falta eta garaiko egunkari eta aldizkarietan gaillentzen zaigu «Aitza» gaztea. Onen idaz-lanak nonnai azaltzen dira (guztira ogeitaamar bat ), batez ere «Gure Mutillak», «Argia», «Euzkadi» eta «Eguna»'n, kontutan artzekoa da mutil aberkoi fiñ onek iñongo ikaske-tarik eztaukala eta dana bere kabuz ikasia eta gauzatua dala. Izkuntza aldetik berriz erabiltzen dun euskera oso txukuna da, goxoa eta ulerterreza, gañera garbizaleen iku-turik eztuna. Erri kutsua darie arren esamoldeak eta euskal-dun guztion belarrietara erreztasun aundi batez barneratzen zaigu berak dabilkin mintzaira. Politika giroa oso bizia da urte sasoi aietan eta «Aitza» 'ri nabarmen zaio zer joera dun, abertzale sutsua da erabat eta au ezin degu ukatu, pekatu ariñ onek ere erioa ekarriko zion.

Berez aro txarrak egokitu zitzaizkion aretxabaletar gaz-te oni, gerrate zibillak bete betean arrapatzen du eta. «Aitza» 'k emengo gudarien alde jo zun, eta berialaxen bere izena eman zun batalloi (gudaloste) batean Saseta zeritzaion ortan. Reinosan (Cantabria) zauritu zuten eta bertako eritetxera eraman zuten zauriak senda zitzan: Andik gutxira eskubitarrak alderdi ori beraien menpe artu zuten eta mutil au iñongo errukirik gabe ormaren aurka il zuten, asko eta asko bezelaxen.

Idazle argitsu onen bukaera tristea bada ere, tamalga-riagoa da oraingo egoera, orduko idazle askoren berri dau-kagunean, geienetan ezagunenak, jatorrenak zearo aztuta ditugu, adibide bat au bera Jesus Peña «Aitza». Oker au erremediatzeko aldiz apaiz saiatu bat gogor alegindu da; «Euskerazaintza»'ren laguntzaz eta senideen baimenakin ikerketa sakon bat egin du, onen emaitza liburu bat izango da epe laburrean kalean, bertan «Aitza» 'ren lan guztiak bilduta geldituko diralarik.

Ni jakin gañean nengon apaiz au (Latxaga) eramaten ari zan ikerketarekin eta bitarte ortan naigabeen etxean aurkitu nitun Basarriren bertso batzuk «Aitza idazle lagunari...» jarriak, oso egokiak iruditu zaizkit lantxo au borobiltzeko. Zirizko bertso auek Auspoaren Sail Nagusiaren 2. alean jasota daude, liburuaren izenburua «Nere Bordatxotik» da eta egillea Iñaxio Eizmendi «Basarri». Mando bateri buruzko bertsoak dira, parra eragiteko asmoan egiñak eta kakoa da «Aitza»'k mando baten gañean jatekoak erama-ten zizkiela «frenteko» gudariai eta orduan abereak bere zerbitzua egiten diela diosku gure bertsolari sonatuak.



## I

Gure «Aitza» jatorrak  
zer berri dakazki?  
Lengoan irakurriko  
zenioten noski;  
mando bat ingura zaie  
patata ta guzti  
azitarako asko  
ez dezute utzi,  
arrane pikaruak  
etzaudete gaizki.

## II

Zeuen mando beltz ori  
portatu zaizute,  
gixadu jana ederki  
gozatu dizute;  
Deklarazioak ere  
egin dizkizute,  
makil ordeztantsua  
eman zaiozute,  
etzerate gizonak  
iltzen badezute.

## III

Zintzo inguratu da  
zeuen salleraño,  
janariz kargatuta  
lepo ezurreraño;  
politikarik ez dula  
berak ornen diño,  
paxiotar, rekete,  
milla demoniño,  
mando ori argiago  
oiek denak baño.

(Eguna, 1.937-III-6)  
Joxe Iñaxio Salaberria

## KUKU

Kukuak kantazen dau  
udabarrian pozez  
zelai orlegian;  
gizadia adi dauka  
arrats-bera urdiñean  
esku-lan artean.

Kantua eta lana  
kukua ta gizona  
lagun egin dira;  
arrats-bera ez-tian  
txoria ta gizona  
besarkatu dira.

## BILDOTS ZURIA

Bildots zuria dakar  
artzaiñak besoetan  
zelaitik etxera;  
ardi ama begira  
nork ostu ete dauktan  
seme zorakorra.

Arrats-berau ba dator  
ama bere ezkortara  
biotzez antzizka;  
ta ara bildotsa pozez  
amarengana doa  
esnea xurgaka.

PAULIN



## UDAL-BATZAK EUSKALERRIAN

Atsegingarria da aspaldion gure errian entzuten dan eta udalbatzak alkartzera joten dauan jokabidea. Ortik itxaropen aundi batek egiten daukula argi dirudi. Baiña goazen edestira.

Udal-batza izan da Euskalerrri osoan erri-erakundeen oiñari: batzarrak Bizkaia'n, Gernikan, batzarrak Gipuzkoa'n, ez beti erri baten, Arriaga'ko Kofradia Araba'n, Lakuan bere batzarrak egiten eta Estibaliz'ko Ama'k orretan zer-ikusia eukala, Naparroan beste era batera Erregearen inguruan, eta iparraldeko eskualdeetan be olako batzarrak izaten ziran.

Baiña udal-batzen indar ori, errietako sendietatik eto-ri-ren nortasun ori, beste gauza askoren antzera, galtzen joan da gure artean.

Urteak dira Eudel sortu zala eta ekintza batzuk bete be bai. Baiña ez gendun or be indar aundirik ikusten. Gauza ederra izan da eta oraindiño ba-da. Eta gaiñera lenago ez egoan on bat eukan: Ez ziran eskualde bateko Udal-Batzak. zabalagoak ziran.

Beste gauzatxu bat, emen aitzu bear ez doguana: Udalerrian azpian auzoen erakundea egoan, kofradiak euken euren bizikera bereizia. Jokabide oso eredugarria: Or alkartzan ziran, baseleiza baten inguruan, auzoak euren eskubideak zaintzeko. Nok egingo ete dau kofradi onei buruz bearrezkoa dan billaketa?

Eta beste arazo larri bat: Batzarretan, Gernika'n bai beintzat, korrexidorea zan jaun eta jabe: Jauna gendun erregeak ipiña, iñoz be euskalerrrikoa izaten ez zana, batzarrak erderaz egitera beartzen ebana, erri-ordezkarriak erderarik ez ekielako kanpoara bialtzen ebazana... Beti sartzen dira gure artera olakoak!

Edestian agertzen diran akats oneik kontuan artu bear ko dira Udal-Batzen alkarte sortua sendotzeko orduan. Baiña ba-dago ortik erriaren alde jokatzeko itxaropiderik?

Ume jaio-barria ikusten dogunean itaun au egin geinke beti: Zer izango eta da ume au? Antzera esan geinke sortu-barria dan udalbatzen erakundeari buruz: Zer urtengo ete da jokabide onetatik?

Beintzat, oraingo, Euskalerrri osoa barruan daroan erakundea da: Iparraldekoak naiz egoaldekoak, naparrak naiz Euzkadi' koak, guztiak dagoz deituta erakunde orretara sartzeko. Oraindiño asko ez dira urreratu, baiña or zabalkunde aundia egin-bearra dago. Euskalerrri osoaren batasuna edo alkartasuna lortzeko urrats aundi bat izan leiteke ori.

Zelan alkartzan da erakunde barri au lengoakaz? Badauka zerikusirik jaurlaritzagaz? Edo Aldundiakaz? Gauza barria da eta etorkizunak esango dau norantza joan, baiña nik erakunde barri oneri zer-ikusia geiago aurkitzen dau tsat Errialdetako batzarrakaz eta Aldundiakaz, parlamentuagaz eta jaurlaritzagaz baiño. Ikusi egin bear ko da zelan alkartu gauza bi orreik.

Dana dala, or agertzen da benetako erri-agintaritzaz edo

demokraziaren jokabidea, orren oiñarria sendietan eta errietan dago eta alderdi politikuetara baiño obeto sartzen da jokabide orretara euskaldunen izakerea. Eta jokabide biak jarraitu bear ba'dabe, ondo banatu bearko dira zeregiñak eta eskubideak.

Aldi zoragarri baten bizi gara, erriaren nortasuna bereskuratzeko aukera barriak dauzan aldi baten. Ikusiko al dabe ori orrelan gaur agintari doguzan frantziarrak eta españatarrak. Ez da izango gauza erreza, baiña erri lez aintzat artzen ba'gaitue eurak ikusiko dabe euskaldunak lagun onak garala, baiña etsai txarrak.

OLAZAR'tar Martin'ek

### EUSKALDUNA

Baserrietako olak tximinidun lantegi biurtzera doaz; aurrera doa, ernai, Euskalerrri osoa lanaren gogoaz.

Jakintza ta fedea biziaren eusgarri daroaz gogoan; ortxe, izango poza maitasunaren bidez geroko geroan.

### UDABARRIA

Zer dozu udabarria ain eder izateko gizonen begian; zer adu maitagarrik jantzi zaitu ain eder mendi bizkarrian...?

Maitasuna darizu bularra urretuta eguzki gorriaz; ta urretxindorra dabil zuri agurka goizez zidar abestiaz.

PAULIN

---

## EUZKOTXINA (5n. SARIA)

---

Gartxot'ek txina'tar jatetxe baten lana aurkitu eban; Diru geiegitxu be ez eban jasoko, baña alan eta guztiz be lagungarri gertatzen jakon. Berrari ez eritxon txarra, ondo ulertzen ez ebazan gauzak jazotzen baziran be.

Euskal mutilla zerbitzari egoan; Liu andreagaz batera iñarduan. Liu jauna txiologako sukaldaria zan. Euren seme Wu'k egiñaalak eurrez egin ebazan tajuzko lana topatzen, baña arrakasta barik. Jatetxean bertan asi eitekean. baña orduan ez al zan an jente larregi egongo? Leitekeana da.

Artean bazkaldar askok joten eban jatetxe aretara ta txandaka-edo irurak, Liu andrea, Wu gaztea ta Gartxot ebiltzan jentearen eskaerak artuten.

Bein batean ezin obeto jantzitako Txina'tar gizonezko bat gertau zan jatetxean. Liu jaunak mairik apañena itzi eioela agindu eutsan Liu andreari. Jakirik onenak eskiñi eutsoezan, eta jatetxeko nagusiak jaun orrek doan afaldu eiala gura izan eban; ardaorik onena ta afari ostein, pattar garestia edan ebazan. Beste bezerorik azaldu ez zanez, Liu jauna beragaz mai berean jesarri zan Liu andrea be inguratu jaken, baña bere senarrak asarre antzean agirika egin eutson:

—Zoaz beste maietara, bezeroak bearko zaitue-ta.

—Ez dogu beste iñor-erantzun eutson emazteak-ango areik akeita ta txoleagaz dagoz onezkero.

—Bardin da, zoaz alan eta guztiz be.

Gartxot be an genduan, egiteko aundirik baga. Arri ta zur lotu zan Liu jaunaren asarreagaz, beren autua ulertzeko gauza ez ba'zan be.

Orduantxe agertu zan Wu: ez eban itxura onik, jazkera zarpail arlote utsa eukon, eta erdi mozkorrik egoala ezagun eban. Aita semearen etorreraz jaubetu zan, eta Gartxot'ek ezin ulertu izan eban zeredozer esan eutson karraxika beren ama izkuntzaz;

Wu'k ez eban zirkiñik egin, ezta erantzun be.

Wu'k orraitio mutil adeitsua irudian, eta gure Gartxot lagunkiro agurtu eban. Erdera naasian esan eutsan.

—Gero orko maikoai kobra egiek, arren, Gartxot.

— Bai, noski. nasai.

Gartxot'en berbok entzun eta gero, sortalde urruneko mutilla bere amagaz sukaldera sartu zan.

Gartxot an ibilli zan, azken bazkaldarrak amaitu ta kontua emon arteño. Bikotea joan zan eta jantokian arrotz a, Liu jauna ta Gartxot geratu ziran. Gartxot gizon biai begira lotu jaken, eta Liu jauna gaztearen begirakuna ikusita, ara nola mintzatu jakon:

— Zer zabiz, lanbarik?

—Oraindik orain joan dira azken bezeroak.

—Ta emengo au ez al da bezeroa?

—Parkatu eistazu jauna, baña ez daust ezer eskatu.

— Kalpar zaar ori moztu egin bear zeunke, orrelan bezeroak uxatuko dauskuzuz-eta.

Bere seme Wu'k be ule luze xamarra eban, baña euskaldun gaztea ez zan ezer geiago esaten azartu.

Gartxot mostradorera urreratu zan. Andik sukaldeko jardunaren zerbait entzun aal eban. Liu andrearen negarrak sumatu ebazala begitandu jakon, baña beste zeredozer izango zala zirautsan bere buruari.

—Aizu-nagusiak ez eutson mutillari beiñere bere izenez deitzen-, zoaz sukaldera ta begira egizu orreik bitzuko zertan dabizan.

Gartxot sukaldertantz abiatu zan; sartu baño ariñago, begi ertzez aditu eban bi gizonak egozan maia, ta arrotzak Liu'ri zorro batzuk emon eutsozala ikusi eban: atea jo ta sukaldertatu egin zan. Emakumea muxika egoan. Wu gazteak zigarro bat eskiñi dautso Gartxot'i. Txina'n kebedar asko erreten ei da, emakumeak gurean baño gitxiago atan eta guztiz be.

—Zera, zure senarrak ona igorri nau.

—Nasai, laster zarratuko joagu, Wang doianean-jaulki eban Wu'k.

—Gizon ori ezagutzen dozue?

— Bai, Wang Lu dok, nire aitearen adiskide miña; geurean bearrean jarraitzen ba'jok, ziurretik bein baño geiagotan ikusiko dok.

Jatetxea ixteko garaia be eldu zan. Wu ta Gartxot tragutxu batzuk edatera urten ziran; zapatua zanez, edaritegiak jentez gañezka egozan, eta or ebiltzan bitzuko, batetik bestera. Wu'k leendik zurrutari emon eutsoez, oraingo onetan artutakoa ariñagokoari batzen jakon. Bere errondakideari egia borobillak autortuteko gogoak emon eutson.

—Aizak, Gartxot, gustora al abil jatetxean?- itaundu eban Wu'k.

—Bai, zergaitik diraustak orrelangorik? Ezezkoan ago ala?

—Ori euk jakingo dok... Ez, ez, ez dok orregaitik.

— Orduan?

"In vino veritas" iñoenak, oraingo onetan, Wu errukarriagaz asmau ebela esan geinke.

—Ara, badakik gure aberritik urtetea gauza erraza ez dana- ganeratu Wu'k- sartaldera etorrta be, zer diruz ekin geinkio bizitza barri bati...?

—Zuek jatetxe dotorea ipiñi dozue beiñepein.

—Ez dok orren erraza; egia esango deuat, batzuetan jazoten dana: txinatarrak Sartaldera erdutakoan, aberkideak jatorkuz, erleak abaraskara lez; beste aberkideakaitik babesa eskiñi bai, baña abaro ori ez dok musutruk. Jatetxea iragiteko diru-laguntza eskiñi euskuen, baña orren

## IPUIN-SARIKETA

ordaiñetan, egin gura ez geunkezan ekintzak egin bear be. Amak eta biok asmorik ez putzu baltz orretan sartuteko, gure aitak baiña buru-belarri eutsi jautsok orri... Etxakiat zertan dabillen, baiña aitak ez jok geiago ama maite... Gure amari dongaro egariarazoten jautsok...

— Zer esan gura dok?

— Lurbirako baztar baten ala bestean jaio, ortxe jagok kakoa... Txina bizi aurreratu ta obatu dok azken urteotan; alan be, ez jaukagu zuek beste aukerarik... Emen albiste gitxi artzen dozuez Zhongguo'ren gorabeeran.

— Zhongguo'?

— Bai, "Erdialdeko Aginterria, Inperioa", Txina, alegia. Zeuon artean pozpozik bizi nauk, eta Jaungoikoa lagun, emen geratu gura geunke... Ama aitarengandik aldentuea gura neuskalk orratik.

— Orren txarto konpontzen dira biok, ala?

— Egia esatea gura ba"dok, alantxe dok.

— Bearbada aurrerantzean euren egoerea nasaituko dok.

— Ez deuat uste.

— Sartaldea be ez dok atsegin-baratzea.

— Jakiña. Emen geratu ezkerro, egunen baten euskeraz be jakasiko joat. Euskerarik badakik\*?

— Neuk bai, baiña jente askok ez. Bizkaia'n euskereak sekulako atzerakoa egin jok... Izkuntzari jagokonez, euskaldunok geure etxean arrotzak bai'giñan bizi gozak.

— Guk Txina'n ez dogu txineraz berba egiteko oztoporik.

— Ikasi egik, alan eta guztiz be... Neuk apurtxu bat irakatsiko deuat.

— Orduan, euskaldun baserritar neska bategaz ezkonduko nauk.

— Asmo ederra dok ori; neska batzuk aurkeztuko deudadaz.

Bat-batean mutil biak barrearj emon eutsoen. Euren biotz xaloak, asmo zintzoek beteak... Bizi guztia aurretik eben oraindiño. An eta emen, toki guztietan txakurrak ortutsik... Wu ostera barriro goibeldu zan, eta negar anpulu batzuk urten jakozan, alkoolak lagunduta.

— Jakingo ba'eu... Aitak ama joten jok... Bein betiko aita izten azartuko ba'litxok...

Nasa<sub>j</sub>, nasai Wu... Biar eguzkia urtengo da-ta GartxoCek ec iñaalak egin ebazan Txina'ko zorigeiztoko inuti I la azkortzen.

ASIER ETXABURUA

### BIZTUKO

Ume jolasak dira txipli txapla uretan gogoa atsegin; erritar alkarrekin nork geiago zapaldu ur pozuaren gain.

Abarka ta galtzerdi musikea etxean soiñuaz kantari; egunero bustirik egunero negarra jausten begiari.

Aro politak dira eguzkia goietan ura soloetan; gogoz biztuko dira lora zuri barriak sagar andarretan.

### EGUZKIA

Sortzetik argizale jaio ziñan gizona urrezkoa zara, oi! zein eder dan goiza eguzkia agertzean zerutik lurrera.

Eguzki maitekorra sorkaldeko mendian agertzen da urrez; ta gizona begira lanera joateko kodain ta atxurrez.

PAULIN

---

# ARREBATXO LUKIA ETA OTSOA

## (4n. SARIA)

---

Agure bat eta atso bat ziran bein. Agureak oilar koskor bat eukon eta atsoak oilo txiki bat. Egun batez, oilarrak simaurtegian astraka galburu bat aurkitu eban eta oiloak, barriz, lobelar bat. Agureak galburua aletu eta aleak eio ebazan uruna egiteko. Atsoak, beraren zen aldetik, lobelar burua ebagi, aleak zukutu eta eztiagaz naastu ebazan, agureak galburutik lortutako urunagaz opilla egiteko. Ain pobreak izanik, ez laberik eta ez surik ez eukenez, curen etxe txikerreko leio ertzean ipini eben eguzkitan erretako.

Bidez-bide etorren lukia, eta etsoa orduantxe sugertatu jakon alabearrez ber-bertan. Lukiak esan eban:

— I, anai otsoa, zer pentsetan dok opilla arrapatu eta anai onlez, bion artean erdibana jaten ba-joguk?

Ederto deritzonat, arrebaltxo lukia! Arrapatu egin bear diñagu.

Besterik barik, opilla arrapatu eban lukiak. Etxetik apur bat aldendu ziranean, konturatu zan opilla ez egoala ondo errea. Eguzkitan egotea komeni jakon apur bat geiago.

— I, otso, au ez jauk oindiño ondo erreta. Erretan dan bitartean lo kuluxka bat botako joguk. Armuzu ederra egingo joguk esnatzerakoan.

Olan engaiñetan eban lukiak otsoa. Baina ak ez eban orrelakorik pentsetan, bai zera! Aingerutxo baten antza eukon lo egoala... Bien bitartean lukiak zer asmatuko-eta, egin eban ak orduan ere eginbearrekoa! Opilla erdibitu eta bitartean eukon eztia ez eban ba jan!.

Eta atoan, eztiaren ordez zer jarriko eta, badakizue zer jarri eutson? Parkatu, baiña... ia, ez dago esan bearrrik.

Pentsatuko dozue zuok zer imiñi eutson. Bi zatiak barriro bat egin ebazan eta beren lekuan itzi eban opilla. Esnatu zan otsoa eta Lukia be bai. Opilla erdibanatzen asi ziranean, lukia izan zan lenengo an zeozer geratu zala esan ebana eta, jakiña, otsoari bota eutsozan erruak. Otsoak, barriz, ezetz eta ezetz, bera ez zala izan. Eta gaiñera, eskukada bat lur jan eban bere errugabetasuna frogatzeko. Baiña alperrik! Lukiak ez eutson siñesten.

Azkenean Lukiak berak proposatu eban froga:

Eguzkitan itzunduko ziran biak, eta beroaren eragiñez eztiaren argizaria dariola jartzen zana izango zan eztia jan ebana. Otsoak ez eban trabarik jarri, konforme egoan froga egiteko.

Egia esan, aingerutxo bat emoten eban lukiak lo egoanean. Baiña lukia orduan be ez egoan lo. Joan zan karraderan inguruko erlauntz batera, erramatxo bat artu, erle gaixoei eztia jan (len be gitxi janekoa ez gendun baiña), eta eskuagaz otsoa igurtzi eban. Eta a ezta itzartu be! Geroago itzartu zan. Bai eta loi izartu be...

Eta orduan ez eban izan beren burua errudun lez agertzea baiño beste erremediorik. Esan eban ez zala gogoratzen noiz ta zelan, baiña baietz, alako froga baten aurrean uka eziñezkoa zala beren errua... Eta amore eman bear izan eban arreba lukiak penitentzi-moduan jarri eutson zigorraren aurrean.

Eizera joango zan otsoa, baiña lortzen eban lenengo arrapakiñetatik ez eban berarentzat ezertxo ere artuko, arrebato lukiarentzat izango zan dana oso-osorik.

Biak urten eben eizara, baiña bakoitza bere aldetik.

Lukiak azagora ikusi ebazan zelan etozen arrain-saltzaile batzuk, euren gurdi eta guzti. Zer igarriko eta, orduan ere igarri eban igartekoa ! Bidean etzan zan luzeluzeluzekoaren itxura egiñaz. Eta il barria ez zala pentsa ez dagien, uzkerria dariola asi zan eukozan indar guztiekaz. Begiztatu eben arrain-saltzaileak eta bizirik egoala pentsatu eben aurrena.

Baiña pittin bat parajetu ziranean eta ak eukon perfumea usaindukeran, eskuekaz sudur-zuloak tapatu, eta esan eben:

— Ilda ezezik ustelduta ere badago! Au da atsa botaten dauena pizti onek! - Eta arraina eroaien gurdi gainera bota eben.

Lukia ez joian lo gurdi barruan. Ortzakaz zulo bat egin eutson gurdiari arrainak kanpora atarateko.

Naikoa eukola iruditu jakonean, salto bat egin eban gurditik. Bidera botatako arraiñak bildu eta zuaitz eder baten gerizpean jesarri zan aietxek jateko.

Bien bitartean otso koittadua makiña bat bide ibili zan bazterrik - bazter eta alegindu zan eizan, baiña ezer barik itzuli zan, aurrez erabagitatako lekura. Lukia

sekulako tripakadea egiten egoala ikusi eban, patxada ederrean gerizpean jesarrita gaiñera.

— Arrebatxo lukia, au dona gosea dakardana ! Emoiztana orretariko arraintxo bat, txiker bat besterik ez bada ere...

— Bai! Zera... Bost emongo deusudaz! Arrapa itzak euk gose baldin baaiz. Nik olaxe egin joat.

— Baiña... mesedez, arrebatxo lukia, arrain-burutxo bat sikiera be, ez ete deustan emongo ?

— Tira, mutil! Ez adi ain gogaikarria izan. Apur-apurtuta nagok arrantzan eginda, eta uste al dok nik ez daukodala goserik ala ?

— Ia ba... Esaidan beintzat non, zelan eta zegaz arrapatu ditunan.

— Gixajo, orixe baiño gauza errazagorik! Ikusten al dok orko erreka ori, or bertan? Oa orrantz, sartuegik buztana uretan eta ago olantxe mogidu be egin barik geldi-geldi, esanez:

«Tenk, arraintxo andi eta txikiak! Tenk arraintxo txiki eta andiak!»... Tira gero buztanari kanpora eta, ikusiko dok zelako arrain mordoa.

Lukiak amaituta eukon ordurako bere banketa eta otsoari laguntasuna emoteko prest agertu zan.

Otsoak sartu eban buztana errekan eta beraren leloa errepikatzen asi zan: «Tenk, arraintxo andi eta txikiak! Tenk arraintxo txiki eta andiak! «... Bitartean lukia

bueltaka ebilen ez ozteko, edur-denbora bait egoan, eta ortz artean esaten eban: «Otsoaren buztana izoztuko al duk burduntzia lez!» Otsoak garbi - garbi ez eutson entzuten, eta itaundu eutson:

— I, arrebatxo lukia, Zer ari aiz esaten?

— Konjuroak egiten nenbilek iri laguntzeko.

Otsoa abrozidu zan, eta bero larregirik be ez eukon atzealdean, orrexegatik buztana atara gura eban errekatik. Lukiak, ordea, ez eutson itzi.

— Ago! — esan eutson —, oindiño gitxik tenk egin jabek eta.

Beraren Lelora itzuli zan bakoitza. Eta otsoa buztana atara gurean asten zan bakoitzean, lukiak ezetz esaten eutson.

— Ago, mutil, oindiño ariñegi dok eta!

Bien bitartean orriak dardakadan jartzen dabezan leia botatzen ari zan.

Larri egoan otsoa; agotik zerion arnas-lurruna izoztu egiten zan... Bazala naiko denbora pentsatu eban lukiak Eta otsoari oi u egin eutson bapatean:

— Tira ointxe!

Tiraka zalaparta ederra atera eban otsoak, baiña ez, alperrik! Buztana izoztuta eukon eta ezin eban ur izoztutik atara.

Alan da ze, antxe geratu bear izan eban otso gizajoak.

Korrika arrapaladan auzora joan zan lukia, eta oiuka asi: - Ei, adiskideok! Erduze arin! Otsoa dago errekan izotzetan katigaturik !

Jende guztia otsoaren aurka abiatu zan. Gizonezkoak taketak eskuetan eukezala joiazan emakumeak eskubera eta supalakaz... Eta a pasadea emon eutsoena, otso gizajoari! Baiña bera be ez egoan emondako dana artzekotan, eta eukozan indar guztiak leku baten bilduz, arik eta andik ies agin arte. Buztana bertan utzita.

Jendea otsoa arrapatzera urten zanean, bakoitza eskuartean eban bearra bertan beera utzita joan zan. Nekazari batek zaldia utzi eban gurdia amarrata egurretara arin joateko. Eta egia esan, otsoari ez jakon bape txarto etorri. Izan be, bere iesaldi zalapartatsuan aixeagaz aurrez-aurre aurkitzea egokitu jakon. Otsoak berak be ez eban izan duda izpirik: igo gurdi gainera, esan arre! Eta an joan zan iñestua baiño ariñago.

Auzoan geiago ez eben izan zidurririk, ez otsoarenik ez zaldiarenik be.

Bitarte orretan, jakiña, lukiak ez eban alperrik denborarik galdu. Jendea otsoaren atzetik joan zanean, utsik lotu ziran etxeak. Aukera ederra lukiarentzat. Etxe baten erbia topatu eban Urunetan gozatuta laberako prest.

Lukiaren ustez, labatik pasa barik be ez egoan bape txarto erbi lodia.

Urdaila beteta ez eukon ibiltzeko gogo andiegirik eta digestiñoa egin bitartean lo kuluxka bat egitea otu jakon. Etzan zan luze-luze bide ertzean eta antxe egoan patxada ederrean ezpanak mizketan, eta ara non datorren otsoa kristoren abiadan eta sekulako auts laiñoak arrotuz. Lukia zauritu plantak egiten asi zan. Ikusi eban otsoak arrebatxo lukia lurrean etzanda, eta zapa guztia laskituta eukola konturatukeran, errukiz beterik paraketu jakon. Lukiak, muxinka eta erdi ilik balego'lez, azurretako muiñak ataratzen ari jakozala esan eutson.

— Tira, arrebatxo lukia, ez adi orrela jarri. Izan kemena! Ara ni... Buztana errekan utzita naiatona. Zer egingo dona? Gauza okerragoak gertatzen dituna! Tira goazen!

Neu be ez nagon ondo, baiña lagunduko donat.

Lukia orduan gurdia igotzen izteko erreguka asi

---

## IPUIN-SARIKETA

---

jakon, baiña otsoak ez eutson itzi gura, berarentzat bakarrik be, ez eukolako leku geiegirik. Etsi egin bear izan eban lukiak, eta txiri-txiri errenka, otsoaren gurdi atzetik abiatu zan. Sikiera anka bat gurdian jartzen uzteko eskatzen eutson, miñez ezin ebal mugitu be egin-eta. Otsoak ezetz eta ezetz erantzuten eutson, baiña lukiak ez eutson bakerik emoten eta azkenean be etzi eutson. Bat sartu ebanean beste irurak be sartu bear ebazala uste eban lukiak, eta kosta jakon, baiña ez eban etsi orixe lortu arte. Urrena arrastaka eroian buztan gaixoarentzat erruki eske asi jakon, eta azkenean oso-osorik gurdian sartu eta etzanda ederto joatea lortu eban.

Orduan gurdia kirrink eta karrank asi zan zarata negartia atareaz. Otsoak lukiari bota eutson orren errua.

—Zer zarata edo zarataondo esaten dok? Ez al dok ikusten urrak txikitzen ari nazela? Orrena izango dok ik entzuten dokan zarata.

Aurrera jarraitu eben, baiña otsoak barriz be gurdiak zarata onik ataratzen ez eban susmoa izan eban, eta erruak lukiari botatzen eutsozan.

—Ara i barriro be! Esan duat ba, urrak txikitzen nabillela!

Eta azkenean gurdia apurtu zan.

Otsoa orduan, makilla batzun billa joan zan gurdia konpontzeko. Lukia zaldia zaintzen lotu zan. Otsoa ez zan ageri, eta lukia zain aspertu ezezik, gosetu be egin zan apur bat, eta orduan zer egingo eta zaldia jan? Alatan be larrua, itzi egin eban.

Denborapasa zer suma egoala, burutaziño auxe etorri jakon: artatxori ugari ebillen an, eta pentsatu eban, aietarikoxe mordo bat bizirik arrapatu eta zaldi larru barruan sartzea. Gero buztan azpiko zuloa lasto apur bategaz itxi eutson.

Noiz edo noiz etorri zan otso buztan-laburra eta laster konpondu eban gurdia. Baeukon ak tajua arotzeri lanetan. Erantsi eutson gurdia zaldiari eta orru egin eban:

—Arre, arre !

Zaldia, ordea, ez zan mugitzen. Ikusi eban buztanpetik ageri jakon lastoa, eta esan eban :

— Arraioa! Ez dok orratio lo egon zatar au nik gurdia konpontzen neban bitartean! Lastoz beteta jagok ipurtzuloraiño !

Eta arre esan eta so ulertzen ebanez, otsoak beraren onetatik atarata, atzealdean dariola eukoza lastoak kendu eutsozan, ibilliezina tuboeskapearen utsa izango zalakoan... Artatxoriek eskertu eben lastoa kentzea, amorratzen bait egozan egaz egiteko, Eta orduan zaldi larrua, plaf! Jausi zan lurrera.

Lukiak, emon eutsoen egurtuagaz ezin zala ibilli esaten eban, eta sano txarto egoanaren itxurak egiten jarraitzen eban. Berak gurdian joan gura eban. Otsoak barriz, ez eukon gurdia tiraka ibiltzeko gogorik. Baiña lukiak baietz eta baietz esaten eutson eta azkenean komentzitu egin eban.

—Otso buztan-motza, luki egurtuaren laguntza.

Eta lukiak, trankil-trankil gurdian itzunduta, murmurikatzen eban:

— Otso buztan-motza, lukiaren irrikuntza.

—Zer esaten dona, arreatxo lukia?

Baietz. Latza dala nire aberial..

LEGARRETA'tar ASIER



**Eusko Jaurlaritzaren  
Laguntzaz.**

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.

---

# "SHALOM" EBER-ITZEN ERREMENTARI!

---

Eliezer Ben Yahuda  
eberkera pizleari  
euskaldunon goresmenez

Anitz gizaldi armatu ta nekatuen  
edesti-zakutzarra guda odolez blai.  
Zokondo-ipurdi gandutsuan  
denbora gabeko bizitz-atean  
(ipuin-munduan murgil, zer guziaz izenak jarritz)  
YAHVEH'ren izandako giza-baratza, oparoa  
lekune doain, bizigarri, zeru arnasmin...

Leenak ez du itzultzerik  
Dagoeneko aldian sarturik  
ez da dana sagarrare, ezti ta jai.  
Lanaz beste ba'da jendaki'esparruan gatazka, luartz eta  
migura.  
Leen gozo zana, orain gazimin, Kain!  
Alare danok zorionaren egarritz.

YAHVEH'ren erri autetsia, aldizka  
auzoko liskarretan oillartua dager, miresgarri.  
Guenean, oillar arroputza ISRAEL deituraz  
kukuak oker joa, Gehena'ko deabru guztien parrez  
larrapote ta liztorrak txirtxillatua, iguingarri.

Loi eta kardulatzez zertutako gizakia  
jarei izateko sortua  
bizi-eiaran zapla! zukutua, giza-oreka galdurik  
MOIS'en aitz-oletako lege-sasiari eta TORA'ri lotuta  
ezin autsi ezago ekidin  
laiotzeko alabear gorriak erabakia.

Txekorren aldarean pekatua jainkotuz  
"Kabala"rik gabe gogoa deslai, EDEN'dik jaurtikia  
iperloken moduan, oiulari antzu, Babiloni askotara  
lekaroz lekaro, teillatupe billa ibillia  
faraonen jopu-katez eta zartailluz  
bizi-adorea nagitsu, porrot-kume eroria.

Artean nun-noiz zan euskalduna?  
noizak ez du urtegun ziuurrik.  
Nolako zan?  
Mami-billa lurrari atzamarka eskola austen?  
Itzari zolua ematen basajaun-eran totelki  
euskeraz oska?  
Euskeraren oraiñak bekar etorkizuna.  
Auxe da gure naia. Geroak epaituko.  
Euskaldunok emen gaude eta egongo.  
Gure abenda-katebegia ez bedi inoiz eten.

Guruzbide abiatuan, odei-matazen bidaide  
mendeak abaildua, ordu nekatuen geznari.  
Anima laztasunak ildoztua.  
Salba gaitzan nun da Salomon'en jakinduria?  
Gaur, orduko seme-alaben zotiñen oiartzuna  
oraindik ere ez da besterik entzuten? Ai!!! ots ituna.  
Euzkadi'n zirrarez, biotz ikaraz entzuna.  
NUN AGO ISRAEL?  
Iraun-senaz, kabi-min etsian galdez dago oroï-arraz  
zerura soz, aidea pitzatzen judutarra.  
Izarrak ñir, mintzul, mezua ez entzun egiñik!  
(Lo arturik ote nago... ala itzarrik?)  
Zazpi besoko "Menora" argi-mutilla ezin pizturik.

Lanbrotartean dakust  
Euskalerrri basotsu txikia;  
mendi zimurretan apal gorderik  
kezkarik gabe dagi bere bizia.

Etsaien eraso: "Utikan judutarrak!"  
Sortaldeko sakabanaketa!  
Ua bai zorikideen barreiaketa luzea!  
Agur ISRAEL maite! (Ur joanari, alperrik uarka)  
Geroztik, elurtez, gudaz eta bestez... bost milla urte!  
Aldiak ez bait-du iñoren eta ezeren errukirik!  
Galdu da lurrealdea, Galdu da ISRAEL. Eta IZKERA?  
Bertakoen eberkera,  
erri-animaren su ta jazkera, akitua!!  
Itzaren surik gabe,  
ondikotz!  
judutarren ezpain kuxu-muxuan negua.

---

## IPUIN-SARIKETA

---

Mutu da ISRAEL, miia xurtua,  
bero-zurtz, ezin ezer errun, ai eziñaren mikatza!  
erbeste-soiñekoz gatz-mukulu geratua.

Euskaldunok ondo dakigu zer dan  
gure paisaiak ez dakien erderan,  
zigorpidez-eta itzegin bear izatea.  
Erri-bizitzaren bultzian, ainbat aldiz, ainbat gaitan  
zenbat min, zenbat lan, euskaldun bezela  
miiz, arnas heroz gurean errotuta bizirik  
jarrai naian.  
Emen zankarte ta langa, oztopo iraintsu an.  
Arrazoi-mamia zaurituz, askatasun-irrika ukatuz.  
Sorkabia maitatzea noiztik da pekatu?

Anima korapillotuta?  
Ez amoreman etsipen-atzapar beltzari.  
Illun-arian gau unatuak ba'daki  
urbil dala oillaritea  
argi-doaiz ernari: ELIEZER BEN YEHUDA,  
gori biotz-labea, egamin, ez aipu-otsez  
ametsen ildotik, makulu barik,  
goi-miñez igurtzia,  
sabindar aizea bezain isiti,  
fu-ta-fu dager illinti ondakintsuan.  
Ari ta ari dagio lanari fedez, itxaroz,  
itz ubelduen ondoeza abertzaletasunez senda nairik  
eber-pizkundearen gogo-gudari.  
Su-garra da, maitemiñaren indarra!

Zer da ba gizonezko onek egin diguna?  
Olermen-lastargiz piztutako  
Dabid'en salmudi majikuan bizkarka,  
okuntza biotz-laiez labakitzen,  
aizaroak laztabinduz,  
larrutxak uxarrean, azterbidez eta ikerka,  
orbel eta iraka belarki ondagarriak baztartuz,  
errapeonak lauskituz,  
albaiñuz adabakiak izerdiz josten  
adi-goruan itz zimel, baetuak eta berrituak  
ariltzen eta dantzarazten...

ELIEZER'ek noizpait  
(egunak, nekeak eta urteak labaintzen...)  
arnas-pilpiraz EBERKERA goxoki troxatuz  
geroko eguterari begira zigan jarri  
noranaiko ari izanaz (Lizardi gureak euskeraz antzo)  
ereintzen bizi-jorana kultur-erroen billa  
erdipurdizkeriak arbuiatuz,  
guntsu, joriki ta tajuz zuzpeltu.

"Haganah'k ez bezela  
(izkilluz eta gerrilari ekitez)  
odolik gabeko egun zurigorria  
eskeintzen dion ELIEZER'ek ISRAEL berriari:  
Erri baten ikur nagusia dan izkuntza berri-piztua  
izar ta lerro urdiñetan argiro gauzatua.

Denboraren altzoan, erdoi-untzaz  
iroiduta zetzan profeten izkuntza.  
ELIEZER'en eragiñez piztu zitzaigun  
kanpai-ots betimiñez, FENIX baten antzera  
lebitarren ilkutxa sakratuan  
talmud-zapiz eortzitako eberkera.

Jo "shofar" turutak ganorez  
Jeriko berrien murrur-aurrean, etsai danak  
amildegian eror-eraziz  
judutarrak, xarmaz eta eraspenez  
zinkurin-arresia lasai musuka dezaten.

Euskaldunon poz-bekaitzez  
errituzko "kipa" txapelkia kankarrean  
aupa! diogu irrintzika BEN YEHUDA'ri  
antziñaren kutsu gozoa dakarren  
eberkera zarraren ats-emailleari.

Euzkadi'tik gure lore-omena el bekio  
agurrezko "shalom" bitartez.  
Gu bai gera alboka, txirula ta trikitixez  
ereskin zarren ots-lagunez  
eber-itz zipristiñak ariztatuz  
ixpillu zaigun GIZUREN judatarr aren miresle.

"OSINTU"K





---

## ZAZPIAK BAT (SEIRAK BAT)

---

Aspaldion Euskalerrri osoa daukagu artega eta urduri eta artegasun eta urduritasun au bakea egiteko bidetik datoz. Zer da ba jazoten dana? Bildurra dautsagu bakeari? Ez orixe, jazoten dana beste au da: Orain-artean be sarritan izan dira bakearen aldiak eta beti amaitu dira txarto, ez ete da orain be olako zeozer jazoko? Adibide bat aitatzekotan, gogoratu daigun Bergara'ko besarkadea. Bakea egiteko izan zan, baiña zelako bakea izan zan? Ez jaku gaur be olako zerbait jazoko?

Euskaldunok erri bat gara eta or daukagu erri lez agertzen gaituan izkuntza, or gure oitura bereziak, or gure siniskerak eta izakerea, gure lan egiteko erea, gure biozkadak, gure sendia eta abar. Baiña, zori txarrez, urteetan eta gizaldietan atzerantza goaz. Egia da orain-arte bizirik urten garala, baiña lurralde asko galduta, euskerea bera baztertuta, euskaldunen kontzientzia bera be albo batera itzita, sarritan erria zati bi eginda ikusteak be miñik emoten ez dauskula...

Egia da beste au be: albo-erriak, batez be Frantziak eta España'k, ez dauskuela lagundu, geiago, kalte egin, baiña gure erria egoera larrian dago, ilteko arrisku bizian daukagu, gaur iñoz baiño geiago, gure arerioak indartsuak diralako.

Lentxuago Euskalerrriaren batasuna adierazteko "zazpiak bat" esaten gendun. Ori esatea España-aldetik galazota geunkan, baiña iparraldera joaten giñanean idazki ori euken ikurriñak, txiskeruak eta olakoak ekarten genduzan. Zelan edo alan geure nortasunari eutsi egin bear geuntsan.

"Zazpiak bat" esalditxu oneri buruz gaur naparrak daukaguz aurka eta Naparroa (iparraldekoa ta egoaldekoa) bat dirala diño eta errialdeak ez dirala zazpi sei baiño. Ni ez naz asarretuko naparrakaz orregaitik. Egia da. Errazoia dauke. Baiña sei ala zazpi larregi begiratu barik, begiratu daiogun "bat" berbeari. Au da benetako indarra izan bear dauan berbea.

Euskaldunak iñoz izan eta gara bat?

Ez. Zori txarrez edo zori onez, iñoz ez gara izan bat eta gaur be ez gara. Euskalerrrian errialdeak beti izan dabe nortasun aundia eta erri osoak ez dau iñoz izan batasunaren ezaugarririk: Iñoz ez dogu euki Euskalerrri osoa batzen izan dauan agintaritzak bakar bat. Eta orrelan, errialde bakoitza

bere lekuan dala, millak urteetan iraun dogu bizirik eta euskaldun berotasuna barruan daroagula.

Euskalerrriko erakundeak udala ta errialdea izan dira eta errialdeko batzarrak agintzaritza nagusia. Sei edo zazpi nagusi orrein artean izan dira artu-emonak, batez be estualdi batzutan, baiña ez iñoz errigintza-giroan batasunera eltzeko asmotan.

Baiña bear dau Euskalerrriak olako batasunik? Euskalerrriaren edestian ez dogu aurkitzen orantsura arte parlamenturik edo lendakaririk. Batzarrak eta Jauna, batez be Bizkaia'n. Eta orra sartzen zan gure nortasuna galtzeko bide izan ziran aide nagusiak, beti españatarrakaz artu-emon estuetan. Bear ete dau ba, Euskalerrriak batasun ori?

Gaur gauza eder lez begiratzen dogu olako etorkizuna: Sei edo zazpi eskualdeak alkartuta, goragokoa litzaken erakunde. Baiña ez da aitzu bearko garrantzi aundia daukenak etxeko jauna eta errietako ordezkariak dirala. Orreik dira lege-egille, orreitatik sortzen da agintaritza, orreitatik epaikaaritza, buru jabetza osoa.

Oiñarri orren gaiñean sortu leikez eta sortu bearko dira goragoko erakundeak, Euskalerrri osoa dan lakoa munduaren aurrean agertuko daben agintariak.

OLAZAR'tar Martin'ek



---

## BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

---

---

# EUSKALERRIA ERRI-ARTEAN

---

Gaur Euskalerrria dana, antxiña lurralde asko zabalagoa zan: Sortaldetik lur-arteko itxasoraiño eltzen zan, sartaldetik gaur Kantabria diran ainbat erri euskaldunak ziran, iparraldean, Akitania ta Bearne ta abar ziran euskaldunak eta egoaldetik Burgos'en iparraldea be euskalduna zan eta Euskalerrriaren barruan ortxe sortu zan gaztelerea. Baiña orain Auñamendi'ren alde bietatik zabaltzen gara euskaldunok, inditarrak euren "reserva"n lez.

Lurralde onetan egurats-giro egokia daukagu: Mendi-kateen goialdetik leona eta be-aldetik ezoa ta euritsuagoa. Ondoren lez, toki bakoitxean lurraren frutuak be ez dira bardiñak: garia ta matra edo artua ta babea.

Gure lurralde au antxiña basotsua zan eta bideak ez ziran asko, baiña erromatarren aldietan asita, bideak ugaritzen joan dira eta gaur toki bidetsua da. Europatik egoalderantz etorteko Irun-inguruko bideak dira egokiak, naizta Kataluña-aldetik be sarrera onak izan.

Lurralde au lantzea ez da izan gauza erreza euskaldunentzat. Amaika izerdi eder emon dabe gure aurretikoak luna emonkor biurtzeko! Ori ta guzti be, euskaldunak beti aurkitu gara estu geure lurraldean eta beste lurralde batzutura urteteko jokabidea beti izan da gure artean. Errazoi bat izan daiteke euskal legeak eskatzen daben ondorenen edo errentzien arazoa: seme bateri emoten jako baserria eta beste anaiak ez dabe aurkitzen non lan egiñik eta etxetik urten egin bear dabe. Nora? Asko be asko, Kolon'ek Amerikak aurkitu ebazan ezkerro, ango lurraldeetara joan dira. Toki guztiak aurkitzen doguz an euskal-abizenez beterik. Baiña urrago be aurkitzen doguz langille euskaldunen urratsak: Euskaldunak argin onak izan dira lanean. Esaterako Bigarren Felipe'k Eskorial egin ebanean argin euskaldunak eskatu ebazan. Izan ebazan eurakaz lan-giroko gorabeera batzuk be. Euskaldunak erritxu baten bizi ziran, arrobatik urrean, eta an elgonia deritxon gaisoa sartu jaken eta eni aren gaur be Mingorria dei-itxo. Erritxu au ikusten dozunean, ez anitu, orixe da izenaren jatorria. Eta gaztela-gizonai buruz irakurri Kirikiño'ren ipuin ederrak.

Gure izkuntzak berak be gogoratzen dauskuz erromatarrek izan genduzan artu-emonak. Izen asko daukaz euskereak latinetik artuta: Lurra lantzearen arlokoak, legeen arlokoak, landaren izenak eta abar.

Inguruko erriakaz sarritan ekin bear izan dau burrukalari gure erriak: esaterako frankoakaz, bisigo-doakaz eta ez ainbeste arrabiarrakaz.

Bide-kurutzea da ba gure erria eta alde orretatik izan dau bere nortasuna galtzeko arriskua, baiña orain artean ondo zaindu dogu geure nortasuna.


Gaur arrisku barriak daukaguz: Txangolaritza edo turismoa da arrisku aundi bat, batez be iparraldean itxasinguruan eta egoaldeko itxas-erri batzutan be bai. Langintza-arloan be erri guztiakaz artu-emonak bear doguz, eta onetan lan ona egiten dau gure Jaurlaritzak baiña ori baiño arrisku aundiagoa da albistebideena: Telebista sartu jaku euskerearen santutegia izan dan sendira. Egia da euskeraz be ba-daukagula zer-ikusi eta entzun, baiña erderaz geiago. Irratietan be antzera jazoten da, ba-dagoz euskeraz diarduenak baiña askoz geiago erdelduak eta irratia be etxebarruraino sartuta daukagu. Guzti oneik arerio barriak eta indartsuak dira. Erantzuna emoten jakin bear dogu.

Eta zein izango da gure erantzuna? Geure nortasunari eustea eta orretarako geure euskerea eta erriko oiturak zaintzea. Mundu guztiko errien artean bat izango da gurea eta frutua emongo dau.

OLAZAR'tar Martin'ek



# EUSKALDUN BARRIENTZAT



Marrazki oneen artean, bi dagoz bardiñak

L<sub>La</sub> i — nuadrzy




Marrazki onetan 7 erru dozuz. Aurkitu!



**EUSI~ZMLETK**

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.  
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



## BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutzat  
artuten dogu, geure erri onen  
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik  
lagunduten deutsegu gogo osoz,  
geure nortasun berezia indartuten  
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten  
deutsagu, kultur adierazpenen  
artean, gure ezaugarririk gorena  
dan euskerearen garapenari.

---

**EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK**

---

**BBK**

**Bilbao Bizkaia Kutxa**

200 pezeta

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO